



DEBAKO ETA ITZIARKO AUZOKONPOSTAJEA

Urtarrilan zehar jasotako **zalantza/iradokizun nagusienak eta beraien erantzunak** ondorengoak dira:

Zalantza/iradokizuna	Erantzuna
Erdiguneko konpost-gunean usaina egon da eta arratoiak azaldu omen dira.	<p>Usaina hezetasun maila altuagatik edo aireztatze txar bategatik izan daiteke. Egituratzaila (material lehorra) gehituz, gutxitzea lor daiteke.</p> <p>Arratoiei dagokienez, udal langileek ez dute arratoirik badagoenaren aztarnarik ikusi, hala ere, Udalak arazo hau sor daitekeenaren berri dauka eta jarraipena egingo dio.</p>
Erdiguneko konpost-gunean euli asko agertzen jarraitzen du.	<p>Eulitxoak baldintza egokiak dituzte konpostagailu barruan; hezetasuna, ingurune nahiko azidoa eta beharrezko elikagaiak (fruta eta barazkiak). Beraz, normala da eulitxo batzuk izatea.</p> <p>Hala ere, erdiguneko konpost-gunean azken aldian dexente daude, laranja azal asko botatzen ari delako eta hauek ez direlako egituratzailarekin ongi tapatzen, beraz, laranja azal hauek txikitu eta egituratzailarekin ongi tapatzeak eltxoak gutxitzen lagunduko du.</p>
Nola eragingo du udaberri eta udako beroak usaian eta eulietan?	<p>Printzipioz beroak hasten direnerako ez dauka zertan eltxo gehiago azaldu beharrik, prozesua ongi eramaten bada, eta gainera, seguruena laranja eta orokorrean zitriko kantitatea gutxitu egingo da.</p> <p>Beroak hasten direnean, prozesua ongi eramateko, udal langileak jarraipen handiagoa egingo diete guneei.</p>
Arazoak egon dira berriro kandaduekin erdiguneko konpost-gunean	<p>Erdiguneko konpost-gunean kandadua aldatu egin zen eta ongi dabil.</p> <p>Gogoratu beti hondakinak kartelak adierazten duen konpartimentuan bota behar duzuela. Prozesuarekin aurrera goaz eta konpartimentuak betez doaz, udal arduradunek konpartimentuak itxi egiten dituzte betetzen diren momentuan eta beste bat irekitzen dute, beraz kartelei kasu egin.</p>

